

Nafarkaria

• ostirala • 1997ko urriaren 10a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Lekunberriko hiltegia ezbaian. • Alkateari kritika gogorak.
Belen Alvarez. • Kontu kontari bizitzen dakien emakumea.
Gure aukerak. • Irene Laffitteren azken margoak Iruñeko Planetarioan.



• LUIS AZANZA

eliz probintzia bidegurutzean

Ez da oraingoa Hegoaldeko lau elizbarrutiak Euskal eliz probintzia bakarrean batzeko eskaera. Erromak Gasteiz, Bilbo, Donostia eta Iruñeko

apezpikuek berriki egindako eskaera, inplizituki bada ere, onartu izanak zalaparta sortu du Nafarroako politiko batzuegan. Elizak, berriz, urte askotako harremana normalizatzeke lehenengo pausoa dela dio.



Arruizko Txikitoren omenaldia, igandean

JUAN KRUZ AZPIROZ, ARRUIZKO Txikito ezizenaz ezagunagoa zena omenduko dute Lekunberrin igande honetan. Herriko festen egitarauaren barruan izugarritzko kirol festa izango da Benemeritaren egunean (jakina da zein den Lekunberriko ezizena), horrela, aizkolari eta laisterkari handia izandakoa omentzeko.

Aizkolari eta korrikalarien artean burutu beharreko proba konbinatua izango da eguneko garrantzitsuena. Bi mailatan arituko dira kirolariak. Lehenengo mailan, hauek izango dira bikoteak: Mindegia aizkoran eta Aingeru Mindegia korrikan, Larretxea eta Pello Garin, Olasagasti eta Juan Mari Garin eta Nazabal eta Pako Aiestaran. Aizkolariek, txanda bakoitzean kanaerdiko bat moztu beharko dute, eta lasterkariek berriz, 800 metroko ibilbidea lau aldiz egin beharko dute.

Bigarren mailan, berriz, ondorengo bikoteek hartuko dute parte: Lopez aizkoran eta Agustin Argiñarena lasterketan, Barberena eta J. J. Okiñena, Arria II eta Ander Arraztio eta Senosian Iruntxiberri eta Markos Zabalorekin.

Harrijasotzailerik ere ez da faltako igandean. Bertan izango dira Ostolatza, Atxaga, Agirre, Urdanpilleta, Perurena aita-semeak eta Mieltxo Saralegi. Guzti hau eguerdian izango da, Lekunberriko eskoletan.

Bestalde, festa ekitaldirik ez da faltako egun hauetan Lekunberrin. Betiko dantzaldi eta ekitaldiez gain, aurtengoa bada berrikuntzarik festen egitarauan. Aipatzeakoa da, esaterako, gaur, 20:30etan Aralar Udal Musika eskolakoek eskeiniko duten rock kontzerta eta bihar, 14:00etan, 25. urtemuga dela eta burutuko den kalderete lehiaketa berezia.

Lekunberri • Ika-mikak sortu ditu hiltegiaren salmentak

Inguruko herrietako alkateek gogor kritikatu dute erabakia

Lekunberrin bada ganadu hiltegi bat. Baina, abendu aldera, ateak betirako itxiko ditu. Arrazoa: Lekunberriko Udalak saldu egin ditu bai hiltegia eta baita inguruko lur saila ere, 18.500.000 pezetaren truke (740.000 libera).



Abendu aldera itxiko ditu ateak Lekunberriko ganadu hiltegiak, betirako.

JAGOBA MANTEROLA

ARALARKO SAN MIGELERAKO bidean kokaturik dagoen hiltegi hau 1984. urtean zabaldu zuten, bertako abeltzainei eta harakinei beharrezko zerbitzu bat eskaintzeko asmotan. Lur sailak 1.400 metro koadro ditu. Horiematik 1.000 Lekunberrikoak dira, eta beste 400ak Larraungoak. Iaz, esaterako, 212 behi buru, 276 ardi eta 165 txerri hil zituzten bertan.

Salmentaren berri izandakoan, zonaldeko zenbait alkate, abeltzain eta harakinek beren ezadostasuna agertu zuten. Jesus Gonzalez Beteluko alkateak dioenez: «Lekunberriko alkateak garrantzi gehiago eman die espekulazio interesei zonaldeko bizilagunei eskaintako zerbitzuari baino». Izan ere, kritika gogorak jaurtiki dituzte Jose Mari Aierdiren aurka. Aierdi, Cederna-Garaluru eta Plazaola Partzuergoko burua da eta bi erakunde horiek bertako garapena bultzatzeko asmoa izanik, ez dute uste hiltegiaren sal-

menta bat datorrenik asmo horiekin. Gainera, gogorarazten dutenez, Cedernak diru laguntza eskaini zuen Baztanen hiltegi berri bat egiteko, eta ez dute uste koherenteak direnik bi hiltegien aurrean hartutako jarrera desberdinak.

Hiltegia Larraungoa ere bazela eta inguruko bailaretako bezera ere bazirela kontuan izanik, inori kasu egin gabe salmenta aurrera ateratzea bidezkoa ez izateaz gain, atzerapauso bat delakoan daude: hiltegia autofinanziatu egiten zen, eta orain, itxearrekin, bertako abereak Tolosara edo Iruñera eraman beharko dituzte, eta hori hilketaren garestitzean eta haragiaren kalitatean nabarmenduko omen da.

Aierdik, Udal osoaren izenean, horrela erantzun die kritikei: «Hil-

tegia egin zenean, aurrekontua 15.000.000 pezetakoa (600.000 libera) zen. Horiematik sei Nafarroako Gobernuak jarri zituen, bi Larraungo zenbait kontzejuk (bikuko egin baitzioten) eta zazpi orduan Lekunberriko Kontzejua zenak, eta hiltegiaren funtzionamenduaren gastu guztiak Lekunberriko ordaindu ditu beti, 1996ean egindako zabalte lanak kasu.»

Lekunberriko Udalak ez du hiltegi honekin aurrera jarraitzeko asmorik, beraz, denentzako den zerbitzu bat berak bakarrik ordaintzen duela uste baitu. Hori bai, zonalde guztirako hiltegi bat, denen artean finantzatuko dena eta gutxienezko baldintza batzuk beteko dituen egiteko asmoa agertzen bada, Lekunberri bere laguntza eskainiko luke.


Dena den, Aierdiren esanetan, «auzi hau ez da gaur goizekoa. 1992an, Europako legediak horrela aginduta, zenbait berrikuntza egin behar zirela eta milioi askotako inbertsioa egin behar zen, eta guk ez genuen horretarako ahalbide ekonomikorik, ezta hori amortizatzeko hilketa kopururik ere. Orduan ere, Larraun kexatu egin zen, eta guk erabilpena, eta honen ondorioz sorturiko gastuak, bere eskuetan uztea proposatu genien, baina ez zuten proposamena onartu».

Bestalde, arraroa egiten zaio Lekunberriko alkateari polemika hau orain sortzea eta ez salmentaren baldintzak Nafarroako Aldizkari Ofizialean agertu zirenean.

→ Urko Aristi

bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Bideoaren bidean

Ezin jakin bideoaren ideia izan zutenean, une batez burutik pasa ote zitzairen noizbait epaiturik eta gartzelaratzeko bidean izan zitezkeela harengatik. Denborak bere bidea egin du orduetik hona, eta bideoaren zabalkundeak ekar diezakeen ondorio posibleetako bat, giltzapeturik egotearena, egiaztatzen hurbil ikusten da orain.

Ez nuen bideoa ikusi: debeku bat erori zitzaion berehala. Irakurri bai, egin nuen ordea, eta baita haren bitartez zabaldu nahi zuten mezua ezagutu ere: ETAK baduela gure altxor preziatua gorde duen kuxtaren giltza, eta horregatik, merezi zuela giltza haren berri ematea, guztiok ezagutu genezan, bideo telebisiboa- ren bidez.

Gartzelaz zigortu nahi dituzte Madrilen, dagoeneko zigortuta daudenean, hemen bertan gainera. Izan ere, hauteskunde kanpaina batean bere burua aur-

kezten duen partidu batek —edozein delarik ere— ongi daki, jakin beharko, jaso dezakeen zigorrak gogorrena, hau da, aurreko bozketan baino botuemale gutxiagorik biltzea, horixe bera dela jaso behar duen zigorra, eta zigor hori, hain zuzen, jaso zuen HBK hauteskunde gau berean, jarraitzailetan igo beharrean, aldekoen botuak murriztu zirelako puska on batean.

Niretzat, hori da -eta ez besterik- bideoaren kariaz HBko buruzagiek jasan behar zuketzen zigor bakarra, beste arrazoiez aparte, irudiek eta bideoaren edukinak botoemale multzo baten atxikimendurik eza ekarri zirelako, nonbait. Horra, bada, zio honengatik hartzekotan, beharko!, hartu behar zuten zigor bakarra. Baina gertaera gordin anitz gertatu dira azkenaldi honetan, hemen eta han, —ari dira oraindik ere gertatzen—: Ermuko hilketa eta bere ondorioz izandako erantzun sozial eta mediatikoa, HBko zein ETAKo mi-

litanteen heriotz/hilketak, atentatu eta kaleko txikizio ankerrak, presoan dispertsio krudel eta sendikoen etsipena, Ortegaren zulo beldurgarria, polizien egurpenak... Honek guztiak, baldintzatzen du nabarmen, bai noski!, judizio honekin zerikusia duen oro, bertatik aterako den epaia barne.

Inor ez dabil benetan pozik Euskalerrian. Ezta ni ere. Dirudienez, nahaspila eta petrakeria omen dira motore nagusi gutartean. Eta Mahai Nazionalako kideen espetxeratzeak min gehiago ekarriko lioke, berez dexente izorratuta dugun herri honi. Minduta, baina harro dabilta PPko eta PSOEko buruzagi eta beretarrak. Minduta eta lur jota, aitzitik, gainerakoak. Batez ere, abertzaleak: kolore guzietakook, aberriarengana- ko deiak esanen zuten bezala. Oroitzen?... lepoan hartu eta segi aurrera... Eta leporik gabe bagenbiltza, ino- ri ezin helduz, eta aurrean ezdeusa balego?

Lizarrar

Aste Internazionalista ospatzen ari da egunotan

LIZARRAKO GAZTE ASANBLADAK ETA 500 Urte batzordeak antolatuta Aste Internazionalista ospatzen ari da egunotan Lizarran herritarren artean beste herrialdeen egoeraren berri emateko xedearekin. Antolatzaileek esan dutenez, «Hirugarren Munduko herrialdeetan bizi duten egoera larriaz jabetzea da gure asmoa, hango gatazken oihartzuna gurerraino heltzea eta bertatik haien aldeko zoezer egitea».

Ekitaldiak joan den asteazkenean hasi ziren eta bihar amaituko dira Foruen Enparantzan egingo den hainbat ekintzarekin. Goizeko 11etatik aurrera azoka berezi bat jarriko da martxan arestian aipatutako plazan. Bertan beste herrialdeetatik zuzenean eta inolako bitartekorik gabe ailegatzaren diren hainbat ekoizkin jarriko

dira salgai. Azoka honetan 500 Urte batzordea, Askapena, Amnesty International, Mugarik Gabe eta Sodepaz elkarteek saltoki ezberdinak jartzea iragarrita dago. Halaber, biharko eguna herrialde ezberdinetako egoera jasotzen duten argazki, diapositiba eta bideo erakusketa batekin osatuko da.

Aste Internazionalista joan den astean hasi zen Zantzia, Guatemala, Ekuador eta El Salvadorren lan egindako brigadistek eskainiko mahai-inguruarekin. Ekitaldiek jarraitu zuten Sabino Cuadrak emandako hitzaldiarekin. Cuadrak Hego Amerikan egun dauden mugimendu iraultzaileen berri eman zuen, Ernesto Che Guevararen inguruan aipamen berezia eginez, hura hil zela 30 urte betetzen diren honetan.

Gaur, berriz, Guatemala eta Ekuador

Leitza



Asketa abesbatza Poloniara

Herriko Asketa abesbatza Poloniara doa heldu den asteartean kantatzera. Abesbatza hilaren 26an itzuliko da Leitza. Hogeita hemeretzi lagunek osatzen dute abesbatza, hogeita bi ahots txurik eta hamabi lodik. Zielona Gora, Wroctaw, Walbrzych eta Krakow hirietan ariko dira kantari. Bidaia egiteko hainbeste komeriantan ibili eta gero, arrakasta izanen dutelakoan daude.

izenburuean bi herrialde hauen egoeraren berri emango du Egiate Garinek. Hitzaldia diapositiba emanaldiaz lagunduko du. —> Kristina Berasain

Sakana

'Emakumea eta enplegua' erakusketa zabaldu da

'EMAKUMEA ETA ENPLEGUA SAKANAN' erakusketaren aurkezpen ekitaldia egin zen iragan asteartean. Pilar Vicente Lanbide Orientaziorako teknikariak eta Susana Mendinueta garapen agenteak banan

banan azaldu zituzten erakusketako panelak. Erakusketa Aton-Mosaique Europako Batasuneko proiektuaren barrukoa da eta 100.000 pezetako aurrekontua izan du (4.000 libera inguru).

Eskualdeko enpresen izaera industriala nabarmendu dute proiektuaren arduradunek. Haien esandakoaren arabera, Sakanako langileen %59k industriari lan egiten dute eta lan egiten duten %76 gizonetzkoak dira. Era berean, katean bost langile baino gehiago dituzten Sakanako 90 enpresetatik bederatzik besterik ez dituzte emakume eta gizonak kontratatzen.

Etorkizunerako bultzatu beharko liritekeen adibideak ere mahaigaineratu dituzte erakusketan, eta autoenpleguaren aukera ere landu behar dela nabarmendu dute. —> Amaia Amilibia

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Hirigintza plan polemikoa

Lekunberri eta Larraungo Mailope aldizkariak, Lekunberriko plangintza urbanistikoren berri ematen du kalean den 50. zenbakian. Lekunberriko Herri Taldeak, hain zuzen, alkatetzaren duen Lekunberriko Taldeak proposatutako plangintza urbanistikoa salatu du. Lekunberriko bigarren indutrigunea da gatazkaren gakoa. Mailope-k bi alderdiei eskaini die beren iritzia plazaratzeko aukera. Herri Taldearen ustez, «aldaketa handiak eta kaltegarriak etorriko dira Aierdiren taldeak Udalean bultzatzen duen urbanizazio politikaren ondorioz. Albuasaldeko poligonoa industrialia ehuneko 80an

hutsik dagoen bitartean, beste poligono baten eraikuntza kritikatzaren dugu, Lekunberriko nekazaritza baldintzatuko duelako neurri batean. Alferrikako lanak eta diruak dira. Hirigintza Planak ez du ez bururik ez oinik».

Lekunberriko Taldeak kontrako iritzia du: «Industrialdea txikia gelditu da. Enpresa gehiago etortzea nahi badugu, nahita nahiezkoa da bigarren fasea martxan jartzea. Egun, Gipuzkoa aldetik, bereziki, lur industrialia eskatzen da, eta Lekunberri oso leku egokia da horretarako. Poligonoak zaborren arazoa konpondu du,

gainerakoan, lehen bezalaxe segituko genuke, hor ziren enpresen porkeriak errekatxora botatzen. Orain, zaborrak tratatu egiten dira, eta hortik Larraun ibaira isuritzen dira».

Herria astekariak, bestalde, Eusko Ikaskuntzak eta Euskaltzaindiak Anton Abadiari egindako omenaldia ekarri du gogora urriaren 2ko zenbakian. «Antoine d'Abadie euskalzaile handia, motaz xuberotarra, Irlandan sortua, mundu guzian aintz kurritu zena eta Hendaian kokatu, horko itsas-bazter xoragarrian eraikirik gaitzeko jauregi ederra».

Donesaturdiko oilarra lumatzen Juan Kruz Lakasta

Miren

Mirenek 6 urte ditu eta Mendillorri bizi da. Txikitatik asko gustatu izan zaio dantza egitea. Bi urte egin aurretik, jada musika entzuten zuen bakoitzean dantza egiten zuen: besoak altxatu, eta salto txikitxoak egiten zituen. Haren gurasoei sekulako grazia egiten zien. Senideak edo eta lagunak bisitan etortzen ziren bakoitzean, musika jartzen zuten, eta Mirentxu saltoka hasten zen bisitarien gozamenerako. Hiru urte zituela, Miren bere atarian bizi ziren gainontzeko haurrekin koreografia txikiak egiten hasi zen Txirri, Mirri eta Txiribitonen kantekin. Horrek sekulako grazia egiten zien Mirenen gurasoei, eta bisitak zeudenean, Mirenek koreografiak dantzatzen zituen.



Lau urte zituela, Mireni eta bere lagunei Txirri, Mirri eta Txiribitonen kantak agortu zitzaizkien, eta Spice Girlsen abestiekin hasi ziren haien koreografiak egiten. Horrek sekulako grazia egin zien Mirenen gurasoei, eta alabari Spice Girlsen konpaktua erosi zioten. Bisitariak Spice Mirenen koreografiak gozatzen zituzten. Bost urte zituela, Mireni iruditu zitzaion Spice Girlsek bere izena esaten zutelako kanta batean: «Miren guana Miren, naau». Horrek sekulako grazia egiten zien Mirenen gurasoei. Etxean bisita zegoenean, Mirenek «Miren guana Miren» abestu eta dantza egiten zuen.

Sei urte bete eta berehala, Mireni iruditu zitzaion Spice Girlsen diskoan esaten zutela «hil ezazu aita naau». Udako egun bero batean Mirenen aita bazkalostean lokartuta geratu zen. Miren Spice Girlsen CDa entzuten ari zen, «hil ezazu aita» zioen kanta. CDa musika aparailutik atera zuen, eta horrekin aitari lepoa moztu zion. Horrek ez zion Mirenen amari inolako graziarik egin. Lur jota dago, eta ez du etxean bisitariarik hartzen. ●

Zapel bakararra lau buru estaltzeko

Euskal elizbarrutiak batzeko Iruñeko artzapezpikuak Erroman egindako eskaerak eztabaida sortu du berriro ere

Fernando Sebastian Iruñeko artzapezpikuak Erromara Aita Santuari ad limina bisita egitera eginiko bidaiak eta lau elizbarrutiak eliz probintzia bakarrean sartzeko eskaerak berriro ere eztabaida sortu du Nafarroan. UPN alderdiak gogor kritikatu du artzapezpikuaren eskaera. Bien bitartean, Elizak nahi duen eran antolatzeak askatasuna aldarrikatu du.

JOAN DEN IRAILAREN 22AN FERNANDO SEBASTIAN artzapezpikuak Erroman Hegoaldeko elizbarrutietako gotzainek lau herrialdeak Iruñeko eliz probintzian batzeko 1996ko irailan egindako eskaerak jasotako erantzunak hautsak harrotu ditu. Lau apezpikuek sinatuta kaleratutako oharren arabera, aurreneko Vatikanoko onartu du Gasteiz, Bilbo, Donostia eta Iruñeko elizbarrutiak elkarlanean aritzea «baliagarria» izan daitekeela eta orain arte egiten duten bezala aldiari-baldin biltzen jarraitzeko lan horren ildo nagusiak ezartzeko. Elkarlanean aritzeari baiezkio eman dion arren, Dikastiloein edo Apezpikuen Kongregazioekin —apezpiku eta elizbarrutien arteko harremanaz arduratzen da— izandako bileretan, berriro ere, «zain» egoteko eskaten die «batzearen atzean arrazoi pastoralak bakarrik dagoelako ideia guztien ondu dadin».

«Erromak ez du boterearekin talka egin nahi, eta hemengo presio politikoetara makurtzen da beste sektoreen eskaerak aintzat hartu gabe»

Egungo antolaketa

Espanian Eliza apezpiku baten agindupean dagoen elizbarrutietan antolatzen da, eta, horiek, era berean, artzapezpiku batek zuzentzen duen eliz probintzia batean biltzen dira. Eliz probintzien eginkizuna elizbarrutien eta apezpikuen arteko lana bultzatzea eta sustatzea da. Egundagoen banaketa Francoren garaian egin zuten. Iruñeko eliz probintzia 1956an sortu zen. Barruan hartzen ditu Iruñea eta Tuterako elizbarrutiak, Donostia, Jaca eta Logroño. Aldiz, Donostiako eta Gasteizko elizbarrutiak Burgoskoan daude 1950az geroztik, Palencia eta Osma—Soriakoarekin batera. Elizak, onartu onartzen du egungo egoera aldatu behar dela baina ez da dagoen egitura aldatzera ausartzen presio politikoak direla medio.

Nolanahi ere, oraintsu sortu den polemikak joan deneko martxoaren 21ean du hasiera.

Fernando Sebastian

Iruñeko artzapezpikua eta Tuterako apezpikua

«Gure arteko elkarlana gizartean gertatzen den zerbait da eta hori antolatu behar da»

FERNANDO SEBASTIAN IRUÑEKO artzapezpikua joan den irailaren 22an Vatikanon bildu zen Gantín kardenalarekin Iruñeko eliz probintzia birmoldatzeko eskaera lutzatzeko. Helburua, duela hogeita urte baino gehiago Hegoaldeko lau herrialdeek duten harremana ofizializatzea eta guztiak Iruñari atxikitzea.

■ **Euskal Elizbarrutiaren inguruan sortu berri den eztabaidaren aurrean Elizari berari erabakitzen uzteko eskatu duzu. Zuk eskatutakoa ez da berria, zergatik hainbeste zalaparta?**

Apezpikuek ez dugu deus berririk esan, joan den urtean Bilbo, Donostia, Gasteiz eta nik egindako eskaerari Vatikanoko amandako erantzuna jakinarazi besterik ez dugu egin. Gauza berri bakarra da Vatikanoren erantzuna. Eliza ez da arrazoi politiko, ekonomiko edo kulturalengatik mugitzen eta mugitu behar du eginkizun erlijiosoa behar den bezala emateko eta elizak erabateko askatasuna eskatzen du nahi duen bezala antolatzeko botere politikoaren eskusartzerik gabe. Onartu dira eliz probintzia birmoldatzeko eman ditugun ar-

gumentuak, eta Iruñeko eta EAEko apezpikuen kolaborazioaren arrazoiak. Horrek badu garrantzia. Espreski Vatikanotik onartua eta baimendua ez zegoen kolaborazioa egitea ez zen eroso. Oso inportantea da lehenengoz Santa Sedeak ofizialki gure arteko lanaren legitimitatea eta justifikazioa onartzea. Ez da inoren aurkako konspirazioa baizik eta gure artean dagoen kolaborazio pastoralagatik justifikatua dagoen zerbait da. Hori argi eta garbi egitea ongi dago, Santa Sedeak orain arte bezala lanean jarraitzeko esan digu eta lanean jarraitze-

ko bultzatzea ona da. Dena den, pazientzia izateko esan digu bartzuk ez dutelako begi onez ikusten eta denbora behar da apezpikuak, erlijioek eta laikoek argi-ago eta lasaiago ikus dezaten ez dugulako modu polemikoan egin nahi.

■ **Eskaeraren berri jakin zenean kontrako erreakzioak egon ziren. Santiago Cervera Nafarroako Gobernuko bozemaiek Vatikanoren erabakia kritikatu du. Gobernuaren biltzeko asmorik baduzu?**


Bai. Prest nago guztien hitz

egiteko. Orain arte ezin izan dut inorekin bildu baina denbora badugu. Hitz egiteko aukeraren zain nago, lasaitasunez hitz egitea inportantea delako.

■ **Erromak eskatzen duen itxoinaldiak zenbat iraun dezake?**

Egia esan ez dakit. Galdera bera egin nion nik Gantín kardenalari eta hurrengo batean bueltatzen ginenean hitz eginen genuela esan zigun. Erroman gauzak ez doaz beinere azkar. Hamar urte daramatzagu gaiarekin eta ez dut arazoa azkartu nahi. Gaiaz lasaitasunez mintzatzea garrantzitsua da eta hartuko dugu behar den denbora.

■ **Denborak eztabaida moldatuko duelakoan zaude?**



Jesus Lezaun eta Pedro Ezeolaza apezak solasean. ● LUIS AZANZA



Orduan Euskal Herriko 507 apezpek Hegoaldeko lau elizbarrutiak —Gasteiz, Bilbo, Donostia eta Iruñea— eliz probintzia bakarrean sartzeko eskatu zuten. Talde horretan zeuden Jesus Lezaun, egun jubilatua eta hogeita hamabost urtez Nafarroako Teologia Ikasketetarako Goi Ikastetxeeko errektorea, eta Pedro Ezeolaza, euskarazko pastoralaren koordinatzailea herrialdean. «Eskaera aspaldikoa da. Aurre-

tik saloak egon baziren ere, honen haria 1966tik dator. Orduan 1.500 apezpek eskatu genuen lau elizbarrutiak Iruñeko eliz probintzian sartzeko».

Dena den, soka martxoko eskaerak ekarri du. Gogoratu dutenez Sebastian artzapezpikua asko haserretu zen apezkek aurkeztutako ekimenagatik. «Jadanik artzapezpikuak egina zuen eskaera. Lau eliz barrutiak onartzen zituen baina Logro-

noa ere sartuz. Ez genekien hori egin zuenik eta bere lana oztopatu guelako haserretu zen». Aldiz, oraintsu Erromak eman duen erantzuna jarraitzen duen politikarekin bat datorrela diote bi apaizok. «Erromak ez du boterearekin talka egin nahi, eta hemengo presio politikoetara makurtzen duen politikarekin kasu egin gabe eta beste sektoreen eskaerak aintzat hartu gabe». Dena den, Vatikanoko amandako erantzuna bakar-korra irudituta zale. «Arazo komunak ditugula eta orain arte bezala lanean jarraitzeko esaten digu. Beraz, badago errealitate horren onarpen publikoa».

Nabarristen eta Madrildo Gobernuaren presioen aurrean Sebastianen «alternatiba» lau elizbarrutiek batera Calahorrako elizbarrutia sartzeko izan da. «Gobernua beldur da lau elizbarrutiak bilduz gero izaera politikoa duten eginkizunak bultzatuko direla eta batasun politikoa lortuko dela, baina egun honek ez dugu uste horretan eraginik izanen duenik. Baina, benetan batasuna haren ikuspegi politikoak oztopatzen du» diote. Era berean, Santiago Cervera Nafarroako Gobernuko bozemaiek proposamena aurkeztekoan eliztarren iritzia ez dela hartu esatea «doaneko hitzak» direla diote. «Aurka altxatu den alderdi bakarra PP-UPN izan da, Nafarroa EAEan sartuko den mamua ikusten du. CDN eta besteak, berriz, ez dira sartzen gaian. Apezpikuen Kontseiluan beti aho batez alde egon dira. Beraz, utzi dezatela Eliza lan egiten».

Dena den, izaera politikoa ezin dela baztertu diote. «Badaude arrazoi politikoak baina ez beraiek esaten dituztenak. Hemen herri baten aldeko politika dago, euskara eta bere kulturaren suspertzearen aldeko ahalegina. Gure harremana normala da eta hori ofizializatzea eskatzen dugu ezkututika ibili beharrean».

«Espero dut. Denak denbora momentuan aurkeztu behar direkin, eta, era berean, erantzun arrazoiak onartzen dituzten eliz probintziak nola funtzionatu duen ikusirik ez dut zergatik hainbeste gaitz gaitz batzuren arteko ezaugarriak dituzten besteekin lan egin behar du. Eliza saiatzen da herriak berez egiten duen egiturara egokitzen. Gure eliza birkokatu beharko genuke. Gaur dugun egoera egituratu gabe eta berez sortu da, egituratu gabe eta horri erantzun behar diogu».

→ Irene Arrizurieta

Josu Osta «Betiko praktikak esaten digu lotura bat dagoela»

Josu Osta Berriozarren bizi da eta Nafarroako Oinarrizko Kristau Elkarteko kidea da. Hogeitabost urte daramatza lanean elkarrekin eta elizaren barruan badute iritzia eta gizarteko arlo askotan egiten dute lan. Elizako partaide izanik, Hegoaldeko beste herrialdeekin duten harremana naturalizat hartzen du eta Elizari ausartu izateko eskatzen dio.

Nafarroako errealitatea «desberdina» dela onartzen duen arren, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako elizbarrutiek duen harremana «oso gertua» da.

Aspaldiko eskaerak berriro sortu duen zalapartak aurrera pausok emateko balioko duelakoan dago. «Erantzuna gehiegizkoa izan da eta politikoki erabiltzen da. Eliza beti gizartearen atzetik dabil. Orain ikusi du beharra eta eman du pauso bat aurrera».



Josu Osta:

«Politikoan erantzuna gehiegizkoa izan da eta politikoki erabiltzen da. Eliza gizartearen atzetik dabil, baina ikusi du beharra eta eman du pauso bat aurrera»

Vascongadoetakoak gure anai-arrebak dira. Amankomunean ezaugarriak izatea ez du esan nahi denontzat gauza bera izanen denik eta hori lagungarria izan daiteke Euskal Herriak duen arazoa laguntzeko eta konpontzeko. Nahiz irizpide ezberdinak izan denok batera lan egiteko gai garelako ikusten badugu hori lagungarri izango da».

Oinarrizko Kristauen Elkarteak kidea «ausardia» eskatzen du. «Batuketa ongi dago, bado arrazoirik eta aurrera egin behar du nahiz eta arazoak sortu. Praktikatik ikasi behar dugu eta betiko praktikak esaten digu Vascongadoekin lotura izan dugula. Horrek esan nahi du naturalki sortzen den behar bat dagoela».

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Glu, glu, ardozealeak gara gu! (2)

Lore Jokoetan nahiz Euskal Jaietan antolaturiko sariketa ezberdinetan, zurruteroen kontrako idaz-gaia saritu zuten



HORDIKERIAREN AURKAKO GURutzadari bultzada emateko, arras argigarria bada 1923.eko *Edariaren kalteko gudea* hartan jasotzen den honako ahapaldi hau: «Edariaren kontra guda gogorra, eten bako gudea erabiliko da Bizkai gustian, onetarako Junta de Cultura Vasca deritxon Bazkunak, edariaren kalteak argitara atarako dituen idazki, idazti ta onetarikoak egiteko ardurea arturik». Eta halaxe izan zen hainbat eta hainbat kasutan, arazo moral-ekonomiko batek bere islada iltzarazi zuelako euskal letretan, bada, Lore Jokoetan nahiz Euskal Jaietan antolaturiko sariketa ezberdinetan, zurruteroen kontrako idaz-gaia saritu baitzuten, hona hemen zenbait adibide erakusgarri. Debako sendagilea izan zen Martin Aranburuk *Erari espirituzcoac gueyegui eratetic personal eta familiai etortzen zaizten ondoren caltegarrien gañean arguibidea* izenburuko lanttoa ondu zuen 1900.eko Azpetitiko euskal itz jostaldietarako, Donostiako moldiztegi probintzalean hurrengo urtean agertu zena. Honetan, eta alkohol mota guztiak deitoratzen bazituen ere, gure gurea zeukan sagardoaren ondasunak, beste edariek alderaturik behinik behin, goraki nabarmentzen zituen: «Nacio bacoitzac dauzcala bere ardo generoac, nola diran sagardoa gure euskal-errian, cervera Alemanian, kumis Rusiyan, pulko Mejico aldean, eta onela beste erari modu asco nacio eta cembait provintzitan usariyo diranac (...) Sagardoac asco eraten danean sortzen duan urdalleco zabaltzea, da gauza chit bidezcoa, bada eraria irrinchitzen danean, sartzen da urdallean zagui chiqui baten barruan sartuco litzaquean becela, eta bat batera sartzen bada erari asco eta asco, zaguiya

premitzen da, gueyegui zabaldu azten da, eta guelditzen da esate bateraco puztuta balego bezala (...) Sagardoaren ordialdiac ez du inñolaz ere eguiten uriracequiaren bitartez artzen danac beciñ calte aundiric, eta ez da ere utzitzen guizona, ganadu baten antzera biururic, baicic lendabizi muguitu azten du mingaña bear baño gueyago, ascotan sortzen dituala inñore ez cequien moduco versolaric, ceñac pishcaca eta poli qui gueroagoan mutu biurutzen diran eta gañiera anca elbarri, sagardoteritic echeraco bidea ongui neurtuaz joateco moduan».


1914.ean Hondarribian ospatu behar ziren euskal jaiak bertan behera geratu ziren Europako gerrate haundia zela bide. Dena den, eta literatur lehiketarako lanak epez barne emanak bazeudelako edo, sariak bai banatu zirela. Horri esker, jakin badakigu sariketa- ren IX. sailean *Damaso Intzakoaren Ordikeria* eta *Blas Pradere Arrutren Edaleentzako gogoangarriak* saritutakoak izan zirela. Oñatikoaren arabera «edari galgarriyatarako grifia kendu nai bada, oituraz bakkarik eta noiznai ez edan, ordu gaiztoan askok eta askok egiten duten bezala; premi gabe edo egarririk ez dala, beñere ez edan, eta, egarriz edan bear

danean ere zalapartan edota edaldi batean ez edan, urdaillerako kaltegarri da ta, pitxinka edan edota txurrutaka, eta onela edari askoz gutxiagorekin eta obetoago egarriya kentzen da». Jean Etxepare Bidadorri sendagile baxenafarrak ere, alcoholaz zuen juzku petralla azaleratu zigun 1920.eko *Es-kualduna* aldizkarian *Jan-edanak* artikuluxkan: «Ai, arno hori! Zenbatak ez dute uste indar-emalle dela arnoa: edanago eta azkarrago gizona! Bere-ziki langilea, iduri zeiei, horrek daukala xutik. Etzanik ba horrek, lurtean ihauska, herrestan langile dohakabea! Edaleak, aitor-azue, arno xorta batek zainak pizten baditu, hiltzen dituela sobera edateak. Emagun, hots, hein batez indar-emalle dela arnoa. Handik goiti, janak eta oro gal-araziz, barnea erre, odola pozoindatuz, estropuzko min bat hatzemaiten badu edaleak, hura gaizkonduz, usiak hartuz, bertzenaz errexi sendatu ahalko zena gangranatuz, hilerrietarat deramake arnoak bere gizona. Eta zalu! Gaude garbiki, ez ote duen ezpatak baino gehiago hilik arnoak berak». Beraz, miriku, apez edota politiko jendakien iritzia bere eginez, herri kantak maleruski badiosku: «Ai ardua, ai ardua / Gizonaren ingainua / Biga-bostetan galerazi deitak gaiko lua / Bai eta biharamunean lanialako gogua». Alabaina, eta herri kantagintzaren aholkularitza gogotik onartuz, esandako guztia esanda, oraindik ardozeale amorratuok garenok, zeharo etsiturik izan arren, kantatu ere honela kanta dezakegu: «Arno onaren gozoa / Hortan dut neure gogoa / Mundu hunetan bizi naizeno / Zainetan odol dudano / Santa sekulan ez diot / Erranen arno onari adio».



etorri ahalean

Patziku Perurena



Demokrazia jostailu

OHARTU AL ZARETE Demokrazia izeneko señorita honi, azken beltzean, nork eusten dion zutik. Diktadore mozarrotu batek. Zein ote den? Begien bistan dago: *abokatua, epailea, jueza magistratua, fiskala*, edo nahi duzun bezala deitu. Atzenaldira nazkatzeko moduan ugaldu den *aktore beltz* horixe bihurtu zaigu demokraziari azken zentzua edo *sententzia* ematen dion diktadore moderno. Eta mundu biribil honetako gizaminak hainen berezko duen kontraesan honetatik ez da inor salbatzen. ETAtik hasi eta PPrainokoa baita, aspaldiko paradoxa zaharra. Begiak paretari irastea aski: «*Demokrazia Euskal Herriarentzat*».

Ez ordea. Diktadoreak, ideologia guztiko diktadoreak, behar ditu gure ama Demokrazia santak, bestela ez luke zentzurik. Ikusi besterik ez zeinen eskura utziak dauzkan bere alabarik missenak: GAL ETA IRABAZI ARTEKO GUZIAN. Bai, Demokraziaren erretorika (euskaldunona barne, noski) zeinen antzu den konturatzen oraintxe hasiko da jendea: kasik gizarte osoa epaile (esan nahi: diktadore) baten sententziaren zai geldituko zaigunean.

Hasia dela ematen du dagoneko diktadoreen galdurfa, eta luze gabe aditu beharrak gara: «*Demokrazia (euskal mitikoa barne)*, *Justizia izeneko fulana diktadorak bahitua daukagu arraso*». A zer adarjotzea orduantxe, bere burua zinezko demokratizat zeukan iraultzaile zintzo harentzako. Harra-pazka aberasten ari diren HBko abokatu sozialista horiek zer esanen ote diote orduan beren hamaika bezero (petxero) jatorri. Auskalo, baina ordurako, behar bada, ni ez nauzu honen *fatxa* izanen, eta norbaitek disekatuko al dit kaskozar hau.

Pio Barojak edo Jon Mirande batek Demokrazia santuaz esandakoak datozkit burura,

edo larehun urte lehenago fartsa zahar honen gainean Joanes Uharte Donibanekoak esandakoak: «Epailearen epaiak ez duela froga ez argibiderik ematen klarki ageri da, beste goragoko epaitegi batean hura deusezten eta bestela epaitzen baitute. Eta are txarrrago, gerta badaiteke beheko epaileak goikoak baino endelegu hobea izatea, eta haren iritzia arrazoiarekin baterago etortzea. Eta goiko epailearen epaia justiziaren frogaz izatea gauza nabarmanagoa da, zeren autu berberetatik, deus ere kendu gabe eta gehitu gabe, eta epaile berberengandik, egunero ikusten baitugu elkarren aurkako epaiak ateratzen direla».

Aspaldiko antzerki zahar hau, hagitz ongi gogoratu berria digu Eduardo Gil Berak ere: «ororen buruan, epaitzea, gertakarien sortzea da», eta bestela esan: «gertakaria, edozein gertakari, ezin da bere osoan inola ere jaso hitzetara, arrazoitara», justiziaren antzerkikira, alegia. Izan ere hitza, arrazoa, juzkua, nolabaiteko eritzi baita beti, ekintzaren gaineko edo azpiko ustea; eta usteak euskaraz benpe erdia ustel izaki beti.

Bi lapur engainadore horien (hitza/ekintza) arteko ardailla duzu, batik bat, egungo gizarteak bizi duen antzerki ergella. Alde batetik demokratik ez dizu beti diktadore den ekintzarako eskubiderik ez kemenik, eta azken buruan, demokratik ezin burutu duen ekintza diktadore horri, epaileak emanen dio itxura demokratikoa. Eta alde-rantziz, demokrata izenekoak beregisa ekintza diktadorerik burutzen duen aldiro, epaileak emanen dio berehala itxura demokratikoa.

Horra zergatik ari zaizkigun epaitegiak paperez metatzen: bizitzari darion taigabeko diktadura inozentea, demokrazi itxuraz xuritu behar parragarri honegatik. Bai ongi esana: «hitza bat emaezu, eta libretituko dira». Horratx ba, demokrazia, eta segi jostetan.

Ziria

• Motxorrozolo •


Hiru gizon bakarka

URTEAK IGARO DIRA BITORIANOREN LIBURUAK FOTOKOPIAGAILUA maiz bisitatzen zuen garaietatik. Egun, bakarka, dozenaka erosten da, eta ez naiz Mendatarraren liburuaz ari, euskara ikasteko metodoaz baizik. Madrilen, zenbait erakundeetan, zaletu dira nonbait. Hizkuntza zaharrak liluratu ote dituen ezin jakin. Gauzak horrela, inoiz, inor epaitzeko tenorean, ez dute itzultzaile nafarren beharrik izanen. Bizkitartean, baso-txoritxoa bakarka ari beharrean talde batean dabil, aurrekoan iragarri bezala, lehenbizikoan hasi da.

Belen Alvarez  Kontu kontalaria eta antzerki taldeen sustatzailea

«Haurrak helduak baino entzule zailagoak dira»

Belen Alvarez kontu kontari ibiltzen da. Jakin badaki kontuaren bizkar bizitzea zaila dela, baina horretan saiatzen da egunero. Antzerkigintzan aritua, ipuiak irudikatu ez ezik, antzerki taldeak sustatzeko Truke elkarte sortu berri du lagun batekin.



BAT-BATEAN BOTATZEN DITU idelak, datozkion moduan ipuinen bat kontatzen ari balitz bezala. Ipuin kontalari lana bere kabuz ikasia, entzule zailenak haurrak direla dio.

■ **Ipuin kontalari izan baino lehen txoritxo batek bide luzea egin duzula aitortu du...**

Duela hamabost urte inguru gorputz adierazpena ikasteko ikastaro bat egin nuen eta konturatu nintzen oso interesgarria zela adierazpenaren mundua eta gehien interesatzen zitzaidana hori zela. Horrela, gorputzarekin eta hitzarekin komunikazioa eta adierazpena lantzen hasi nintzen. Gero, Txingurritegi talde amateuran sartzea proposatu zidaten eta haiekin egon nintzen lau urtetan ikasi nuen zer zen antzerkia. Txingurritegitik Nafarroako Antzerki Eskolara (NAE) joan nintzen, urte bat bakarrik egon nintzen. Gero Iruñeko Udalarekin joko tailerrak egiteko aukera izan nuen eta gainera gustura sentitzen nintzen arlo hori lantzen. Tarte horretan Irakasletza ikasi nuen eta literatur erakusketa bat egiteko Fira Zerbitzu Kulturaletarako enpresak proposatu zidan animazioa egitea. Txikitik entzun nituen ipuin asko baina espreski niri kontatutakoak heldua nintzela izan ziren. Ikusi nuen ahozko adierazpenak eta hitzak badutela sakotasuna, mamitsuak direla, eta nire kabuz gauzak lantzen hasi nintzen. Orain, kontu kontari ibiltzeaz gain, Iturramako eskolan gorputz adierazpenerako klaseak ematen dizkiet haurrei.

■ **Lanbide askotako emakumea zara, kontuak ez du bizitzeko ematen?**

Ez. Batzuei agian bai. Kontu kontalariaren munduan badaude aukerak. Gauza bakar batekin ezin daiteke bizi baina zure lan esparrua zabaltzen baduzu bizi daiteke. Bakoitzak irudimenarekin bilatu behar ditu lanbiderako irtenbideak. Ohiko ipu. kontala-



riak idazleak edo eszena mundutik etorritako aktoreak dira eta ni bi horien tartean kokatzen naiz. Ipuin bat kontatzea ez da antzerkia. Nik zatika asmatzen ditut edo bi ipuin nahasten ditut. Askatasun handiarekin mugitzen naiz eta hori da gehien erakartzen nauena.

■ **Batez ere, haurrak dituzue zure kontuen entzule. Onak dira?**

Zailak. Helduak baino zailagoak. Badirudi ipuinak haurrentza-

ko direla baina askotan entzule onak izateko kanpo baldintzak oso onak izan behar dute. Haurren arreta erakartzea ez da batere erraza. Helduaren jarrera entzutekoa da, baina haurrak ez du jokabide hori eta erakarri egin behar duzu. Dena den, behin erakartzen duzunean gehiago sinesten du esaten diozuna. Haurrekin asko landu behar duzu giroa. Zure lana kontatzeko moduan dago eta ez giroan.

■ **Nolabait, antzerkia eta hez-**

soslaia

Belen Alvarez iruindarrak 32 urte ditu eta horietatik hamalau antzerkigintzarekin harremanetan daramatza. Lehenengo aktore izan zen, gero gorputz adierazpena ikasi zuen, eta egun, haurrei hori erakusteaz gain, kontu kontari aritzen da.

Hamalau urterekin hasi zen euskara ikasten eta geroztik hainbat antzerki tailer prestatu ditu euskaraz. Baina hasi berria den ikasurterako Truke du proiektu handizalea. «Hemengo taldeentzako onuragarria izanen delakoan nago. Antzerki mundutik etorritako jendeak sortu dugu antzerkiaren onurako», dio.

Dagoeneko hiru antzerki talderekin ari da: Sambu, Trokolo eta Melody Sisters, eta beste biek dago harremanetan. Egunduek espezializazioa beharrezkoa dela aintzat hartuz, haurrentzako zein helduentzako eskaintza zabalagoa lortu

nahi luke. Nolanahi ere, aisialdia eta lana uztartuak dituzenez, gustoko duena eta lagunekin egoteko beta ba omen du.

■ **kuntza uztartu dituzula esan daiteke?**

Gure esperientzia eskasa da. Iturramako ikastetxeko lehenengo mailan joko dramatiko lantzen dugu eta bosgarrenean antzerkia. Joko dramatikoak ez da antzerkia. Haur batek ezin du

antzerkia egin guk ulertzen dugun moduan. Bakarrik jolastu joko dramatiko eta sinbolikoekin. Hori nortasuna aberasteko eta bere gorputza dimentsio batean ongi erabiltzeko egiten da. Eskolaurtean lantzen badira ere, eskolan haustura bat dago. Ikasleek edukiak jaso besterik ez dute egiten eta zerbait atera behar da barnetik kanpora, gainerakoan ez dagoelako orekarik. Eta oreka hori aurkitzen laguntzea da nire lana.

■ **Egiteko asko dagoela diozu. Zer sumatzen duzue faltan?**

Haurrentzako antzerki obrak ikusteko areto on bat falta da Iruñean. Haurrak antzerkira eta antzerkia haurrei hurbiltzea nahi nuke. Eskoletan aukera badagoen arren, ez dut uste behar adina lantzen denik. Eskolan antzerkia oso inportantea da nortasuna aberasteko eta irakasleak ez daude hori irakasteko prestatuak.

■ **Hezkuntzaz landa, antzerki taldeak ezagutzera emateko Truke enpresa sortu berri duzu.**

Hori ireki dudana beste bide bat da. Sambu haur antzerki taldearen sustapenean hasi nintzen duela hilabete batzuk. Antzerkiaren helburuak oso landuak daukat eta horregatik sartu nintzen. Esperientziarekin ikusi nuen behar bat zegoela Nafarroan. Orain talde berriak atera dira eta antzerki mundua mugitzen ari da. Talde gehiago sortu dira eskolatik aterata. Beharra sumatu ondoren, hutsune hori betetzeko duela bi aste Truke sortu dut nirekin batera haurrekin lan egiten duen Elena Amondarainekin.

■ **Iruñea ez da oso hiri handia. Badago lana guztientzat?**

Bakoitzaren lan egiteko gogoan eta irudimenean dago guztia. Gero eta jende gehiago gaude baina dibertsifikatzea ezinbestekoa da. Behar asko daude eta dagoen azpiegitura eskasak ere ez du laguntzen. Gaiarre antzokiarekin ez dakigu zer gertatuko den. Nafarroako Antzerki Eskola hor dago. Egiten duen lanak gero eta harrera hobetuz du baina atzetik lan handia dagoelako. Hirian ez dago antzoki on bat programazio egonkorra egiteko. Antzerkia sasoi onean dago baina ez dago azpiegitura aproposik lan hobea egin ahal izateko.

→ Irene Arrizurieta

Nafarkaria

Egunkaria

• ostirala • 1997ko urriaren 10a

BEKARIO!

ZALDI ERDA



Nafar Kronika

Pello Goñi

Ortopteroak

KILKIR IZURRIA DUGU NAFARROAN, uda apurtu nahi ez duen larrazken berotsu idor honetan. Diotenez, Iruñeko Udaletxeko igogailuari bi itsatsi zaizkio eta egun guztia ematen dute kantari solairuz solairu, bisitarien harridura eraginez. Baina Udaletxea ez da salbuespena, kilkirrak nonahi aditzen baitira egun hauetan.

Halare, kilkir izurriarena ez da kontu berria. Historian zehar hainbat eta hainbat ortoptero errotu dira lur hauetan, gustu orotarako kantu motak eskaintzen dituztenak. Konparazio batera, J. Inaxio kilkirra dauka gu hemen, egun saindu batean Nafarroaren defentsari atxikitu zitzaiona, huntza hormari bezala edo mandeullia astoari bezala, eta tira, gainerako guztiok haren kantu monotono errepikakorra aditu behar izaten dugu, nahitaez. Jakina, familiatik datorkio J. Inaxiori kanturako dohaina. Oraingo honetan, adibidez, euskal elizbarrutiaren afera da bere kantu minimalista inspiratzen duena. Benoo...! jai daukate apezpikuek, ez baitakite zeini egin dioten aurre! Oraingo, kilkir bitxi honen kantua Vatikanoraino iritsi da jadanik eta Aita Santuak ederki jasotu du mezua, inolako interferentziarik gabe. Bistan da. Ez da neurri zehurra nafarrak eta vascoak eliza kontuetan nahastea. Aukera hori aipatze hutsak kristoren kezka sortzen baitu euskal eliztarrengan. Azken hori Cerverak esana da. Hau ere kilkir zelebrea.

Baina utz ditzagun Elizaren aferak, kilkirrak haratago iritsi dira eta. Begira, bestela, Parlamentuan gertatzen dena. Han ere beste zomorrotxo bat itsatsi zaio aulkiari eta, ematen duenez, ez dago modurik handik uxatzeko. Martin du izena, Landa abizena, Tuteran hazia, Iruñean gizendua — politikoki bederen —, Iuren kontura. Legealdia bukatu du aulkia berari dagokiolakoan eta kopetan «transfuga» marka paratuta. Haren kantua aditze-ko parada izanen dugu. Arestian nioena, bada, kilkirrak nonahi udazken arraro honetan.

gure aukerak

KONTZERTUAK

► **Iruñea:** Ernesto Che Guevararen aldeko omenaldia antolatuta du Askapenak Sanduzelako Txokoan. Hori dela eta, Sesteto Santiagerok kontzertua eskainiko du gaur 22:00etan.

► **Iruñea:** Sanduzelako Txokoa **Reincidentes** eta **Sindrome del Norte** taldeak ariko dira bihar, 20:00etan. Sarrera 600 pezeta kostako da.

► **Iruñea:** Xirula, klabe eta txelo kontzetua antolatu du gaur Andreak Txantrea auzoan duen egoitzan 19:30etan.

► **Zangoza:** Gaita eta saxofoi laukotea ariko da bihar, 20:00etan, Kultur Etxean.

► **Elizondo:** Buruko mina taldeak bihar Casino tabernan joko du 22:30etan.

LEHIAKETAK

► **Lizarrak:** Udalak Lizarrako III Biurteko Pintura lehiaketa antolatu du. Atzerritarrek zein euskal herritarrek lan bana aurkeztu ahal dute. Irabazleak 500.000 pezeta jasoko ditu, bigarrenak 300.000 eta hirugarrenak 200.000. Artelanak Gustavo de Maeztu Museora igorri behar dira. (San Nicolas 1, 31200) azaroaren 16 baino lehen.

ERAKUSKETAK

► **Iruñea:** Ortzadar folklore taldeak Nafarroako janzkera tradizionalei buruzko erakusketa zabaldu du Erraldoin Txokoan, Descalzos 72 kalean. Astelehenetik ostiralera 18:30etatik 21:30etara dago zabalik eta larunbatean 10:00etatik 14:00etara.

► **Iruñea:** Planetarioan Irene Laffitteren margoak ikusteko aukera dago heldu den azaroaren 2ra arte.

► **Iruñea:** Azul galerian Joxe Uliarrenak bere azken lanak erakusten ditu datorren azaroaren 2ra arte.

BESTELAKOAK

► **Iruñea:** Ernesto Che Guevarari omenaldia egingen dio Askapenak gaur 8:30etan Sanduzelako Txokoan. Han izanen da Jorge Quesada Kubako enbaxadako kidea.

► **Iruñea:** Sakanako IV. Txirrindulari Eguna korritu da etzi goizeko 9:30etan.

► **Oltza:** Ikea elkarteak txirrindulari ibilaldia antolatu du etzira. Txirrindulariek Iruñeko Basotxo parketik atera eta Oltzako Zendeaingo buelta egingen dute. Bi taldeetan atera daiteke, lehena goizeko 9:00etan eta bigarrena 10:00etan. Kaskoa emateko derrigorrezkoa da. Informazio gehiago 17-43-58 telefonon.

► **Iruñea:** Iruñeko Udalak sor-

menezko tailerrak euskaraz antolatu ditu aurten ere. Guztira hamasei ikastaro izanen dira: argazkigintza, pintura eta modelatu artistikoa, grabatua, ehungintza, txalaparta, sukaldaritza, euskal dantzak, areto dantzak, dantza etnikoak, aerobic, irratia, antzerki teknikak, Yoga, Animazioa eta multimedia eta zeramika. Oraindik ez baduzu erabaki zertan aritu, gaur duzu izena emateko azken eguna Gaztediaren Etxean Etxean, arratsaldeko 6:00etatik 9:00ak arte. Ikasturtea urriaren 13an hasiko da.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini